

**BIODONOSTIAra BISITA**
VISITA A BIODONOSTIA

2013.07.17 HOSPITAL DONOSTIA OSPITALEAI 17.07.2013

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburuok, Gipuzkoako Aldun Nagusia, Osakidetzaren zuzendari orokorra, BioDonostiako arduradunak eta profesionalak, jaun andreak egunon guztioi.

BioDonostia euskal administrazioak ikerketarekin eta garapenarekin duen konpromiso irmoaren adierazgarri nabaria da.

Duela bost urte, aipatu bezala, sortu eta duela hiru urte martxan jarri zen proiektua. Egun ia 300 ikertzaileek egiten dute lana Institutu honetan.

Azkeneko hamarkadetan osasunaren ikerketak eta horren produktibitateak goranzko joera izan dute gure artean. Hemen, BioDonostian, hori agerian dago.

Osasun zientzien ikerketak eta garapenak bi bizi funtzio ditu gizarte osorako.

Alde batetik, herritarrei arreta edo atentzio hobea eskaintzea, praktika klinikorako eta gizartearen ongizaterako ezagutza sortu eta aplikatu.

Eta beste alde batetik, aberastasuna sortzen eta garapen ekonomikoa lortzen laguntzen du. Osasun sistematik bertatik berrikuntza sortzen duelako eta beste eragile batzuen berrikuntzan laguntzen duelako. Ezinbesteko kidea da biozientzien eta osasunaren alorretan jarduna garatzen duten euskal enpresentzako.

Hauek dira BioDonostiaren xedean jasotzen dituzuen gizarte funtzioak.

Hau da Eusko Jaurlaritzak bultzatu nahi duen xedea Ikerketa zentro honetan.

Esta es la descripción que realizáis de vuestra propia misión en BioDonostia, según he leído: “un centro de I+D+i donde se desarrollen actividades científicas de excelencia con gran repercusión nacional e internacional que sean trasladables a la práctica clínica y al entorno empresarial”.

La sociedad vasca es cada vez más consciente de la importancia y relevancia de la actividad investigadora en nuestro sistema sanitario. Queremos mantener el carácter pionero e innovador de nuestro sistema que el Instituto BioDonostia representa.

Vamos a mantener, insisto en el mensaje, el carácter público y universal, así como la calidad del sistema sanitario vasco. En este empeño, las actividades de I+D+i son esenciales porque, como demuestra la experiencia, hay una correlación directa entre “buena asistencia” y “buena investigación”.

La creación, por primera vez, de una Dirección de Investigación e Innovación en el Departamento de Salud es una clara demostración de la importancia que nuestro Gobierno concede a la I+D+i sanitaria.

Helburu hau gizarte helburu bat da. Eusko Jaurlaritzak herrialdeko zeharkako politiketan sinesten du, hurrengo belaunaldietan pentsatzen duten politiketan sinesten duelako.

Horrela, gure etorkizunerako lanean ari gara European adimendun espezializazio estrategiak bezala ezagutzen direnen bitartez.

Hau da gure bidea, Europako estrategiarekin bat datorrena.

Esta estrategia es nuestra diferenciación, nuestro valor añadido, alineada con Europa, con el marco estratégico Horizonte 2020.

Euskadi lleva 30 años trabajando en la continua evolución de sus políticas sociales, formativas, científicas, tecnológicas e industriales para ofrecer el mejor servicio posible a la ciudadanía.

Aquí, en BioDonostia, resulta oportuno recordar que tenemos un ejemplo reciente de una estrategia de especialización inteligente. Formáis parte del ámbito de biociencias en su faceta de salud humana que fue reconocido por Europa en los premios Regiostars 2011.

Esta es una experiencia que ha abierto nuevas avenidas de crecimiento y competitividad para nuestra industria. Como Lehendakari os pido que sigais en esta senda que resume uno de vuestros valores, y también lo cito expresamente: “la formación, la difusión y el retorno a la sociedad”.

Balio hauek behar ditugu eta zentzu honetan BioDonostia eredugarria da, Euskadiren ahalmena adierazten duen adibide bat delarik. Gauza izan gara etorkizunera eta etorkizunari begira eta inplementazioan eta kudeaketan arrakastatsu diren estrategi dinamikoak diseinatzeko.

Hori izan da BioDonostiaren bidea, aurrerantzean elkarrekin jorratzen eta indartzen jarraitu behar duguna.

Eskerrik asko denoi.